

Zertan zetzan Iraken aurkako gerra hura?

Joseba Felix Tobar-Arbulu
UEUkidea eta EHUko irakaslea

Iraken aurkako gerra petrolio-moneta gerra bat da. AEBetako gobernuaren helburua LPEEko herrialdeek, petrolio-transakzioetako moneta standard gisa, eurora jotzea alboratzea da. Saiakerak “petrodolarraren” makroekonomia eta, petrolio-moneta alternatibo moduan, eurotik AEBetako nagusitasun ekonomikoari datorción mehatxua ikertzen ditu. Nazioarteko sistema monetarioan erreforma bat behar da. Petrolio-monetaren gaineko edozein gerra alboratzeko, nahikoa izanen lirateke Bernard Schmitt-en erreformak.

The war against Iraq is an oil currency war. The goal of US government is to prevent further LPEE countries to move towards the euro as an oil transaction currency standard. The essay dicusses the macroeconomics of the “petro-dollar” and the threat to US economic hegemony from the euro as an alternative oil transaction currency. A reform of the global monetary system is needed. Bernard Schmitt’s reforms could be enough to avoid any oil currency warfare.

1. Historiaren datu batzuk

Ikus dezagun, labur bada ere, Iraken kontrako gerraren prolegomenoak. (Data, autorea eta beronek egindako lanean agertzen diren ideia nagusiak aipatuko dira.)

Hasteko, esan dezagun ezen Spiro-k (1999, 103-112) dioenez, jadanik 1974an AEBetako Altxor Idazkariak isilpeko akordio bat egin zuela Saudi Arabiarekin; haren arabera, Saudi Arabiako banku zentralak AEBetako Altxor-baloreak eros zitzakeen enkante normaletik at. Geroago, beste akordio bat lortu zen Saudi Arabiarekin, LPEEko (Lurrealde Petrolio Esportatzaileen Erakundea) herrialdeek petrolioaren prezioa dolarretan izaten segitzeko.

Spirok azpimarratzen duenez (1999, 121), LPEEko petrolioaren prezioa AEBetako dolarretan agertzen zen bitartean, eta LPEEko herrialdeek dolar horiek AEBetako baloreetan inbertitzen zituzten artean, AEBetako gobernuak mailegu bikoitzaz jabetzen zen. Maileguaren lehen partea petroliorako zen. AEBetako gobernuak dolarrak inprima zitzakeen petrolio ordaintzeko, eta petrolioaren trukean amerikar ekonomiak ez zituen ondasunak eta zerbitzuak hornitu behar, harik eta LPEEko herrialdeek dolar horiek ondasunetarako eta zerbitzuetarako erabili arte. Bistakoa denez, estrategia horrek ez zukeen funtzionatuko, baldin eta dolarrak izan ez balira petroliorako truke-medioak. Maileguaren bigarren partea beste ekonomia guztietatik zetorren, zeintzuek —dolarrak inprimatzeko inongo eskubiderik gabe— petrolio erosteko dolarretan ordaindu behar baitzuten. Ekonomia horiek guztiek beren ondasunak eta zerbitzuak dolarren kontra aldatu behar zituzten LPEEko herrialdeei ordaintzearren.

Arazoa da ea LPEEko herrialdeek egoera berezi hori onartzen segituko zuten ala aldaketaren bat proposatuko zuten. Horra hor, bada, giltza.

(i) 2000ko azaroa. Ch. Recknagel, *Iraq: Baghdad moves to euro*. (<http://www.rferl.org/nca/features/2000/11/01112000160846.asp>)

“Petrolio janariaren orde” izeneko programak bi kontu izan behar zituen, bata dolarretan, bestea eurotan. Saddam Hussein-ek bi arlo bereizi bide zituen: batean AEB eta Britainia Handia (eurotik kanpo zegoen); bestean Frantzia —Errusia eta Txinarekin batera—.

(ii) 2001eko maiatza. A. Makhijani, *Saddam's last laugh. The dollar could be headed for hard times if LPEE switches to the euro*. (<http://www.tompaine.com/feature.cfm?ID=4110%20>)

Historikoki petrolioaren prezioak AEBetako dolarretan agertzen ziren, AEBetako ekonomiaren onurarako. Baina, zenbait gertaera zela bide, agian, LPEE elkarteak petrolioaren prezioak dolarretik eurora alda zezakeen. AEBetako ekonomian eta egonkortasun monetario globalean aparteko eragina izan zezakeen erabaki hark.

LPEE petrolioaren prezioen politika dolarretatik eurotara aldatuz gero, dolarren aurrean lehiakide global handia izanen zen euroa.

Azken udazkenean, Irakek Nazio Batuen Erakundeari baimena eskatu zion, eta erakunde horrek onartu, bere petrolioia eurotan ordaindua izan zedin. Halaber, Iranek aukera berbera eskatu zuen. Argi dagoenez, LPEEko petrolioaren prezioen politikan aldaketa ekar zezaketen bi mugimendu haiek.

Dolarretan barik, petrolioaren prezioa eurotan egiteak dolarretik ihes izugarria ekar zezakeen. Beste edozein moneta bezala, mundu finantzarioan gertatzen diren moneta-transakzioen menpe zeuden AEBetako dolarrak. Baina, dolarrak berezitasun bat zeukan, AEBetako monetaren kopuru handi bat —agian, erdia baino gehiago— atzerrian zegoen.

Dolarrak edukitzeko atzerritarren desioak botere finantzario handia ematen zien AEBei. Baina atzerritarrek, dolarren jabeek, dolarrak saltzea erabakiz gero, dolarraren balioa jaits zitekeen; eta beste moneta batzuen balioak handitzen ziren heinean, Ameriketako enpresen eta ondasun higiezinaren balioa desbaliozta zitekeen. Gainera, ez zegoen inolako bermerik fenomeno hori kontrolatzeko.

Bestalde, noizean behin Errusiak ere bere interesa erakusten zuen eurotik hurbilago egoteko.

(iii) 2001eko azaroa. M. Ruppert, *A war in the planning for four years*. (<http://globalresearch.ca/articles/RUP111B.html>)

Ruppertek Brzezinski-ren liburuari buruzko —*The Grand Chessboard* izenekoa— zenbait iruzkin plazaratu ziren. Brzezinskiren iritziz, Kaspiar itsasoko petrolio eta gasa kontrolatuko zituenak kontrolatuko zuen mundu-ekonomia.

(iv) 2002ko urtarrilak 7. *Euro continues to extend its global influence*. (<http://www.europartnership.com/news/02jan07.htm>)

Txina, munduko bigarren herrialdea moneta-erreserban, dolarretik eurora aldatzen hasi zen. Halaber, zenbait dei egin ziren LPEE has zedin erabiltzen euroa bere merkataritza-moneta global gisa. Joera horrek iraunez gero, Europar Batasunaren eta AEBen arteko lana egin beharko zen, oreka segurtatzeko. Izan ere, LPEEko herrialdeetarako berorien merkataritza-moneta global gisa euroa hartzea proposatu zen.

(v) 2002ko apirilak 11. C. K. Liu, *US dollar hegemony has got to go*. (<http://www.atimes.com/global-econ/DD11Dj01.html>)

Nazioarteko egitura finantzarioa AEBetako dolarrean —erreserba-moneta nagusi gisa— oinarritzen zen.

Mundu merkataritza joko bat zen: AEBek dolarrak ekoizten zituzten, eta gainerako munduak dolarrak eros zitzaizkien gauzak produzitzen zituen. Herrialdeak esportazioetan lehian zeuden, dolarretan neurtutako kanpo-zorrak zerbitzatzeko behar ziren dolarrak eskuratzearen. Beren moneten kontrako espekulazioa alboratzearen, munduko banku zentralak zirkulazioan zeuzkaten beren moneta-kopuruei zegozkien dolarrak eskuratu eta erreserbetan eduki behar zituzten. Zenbat eta handiagoa izan moneta jakin baten gaineko devaluazio-presioa, orduan eta dolar gehiago eduki behar zuen bere banku zentralak. Horrela, dolar sendoaren

aldeko eskaera batek —zeinak, bere aldetik, munduko banku zentralak dolar-erreserba gehiago eskuratzera behartzen baitzituen— dolarra are sendoago bihurtzen zuen. Horixe da, hain zuzen ere, petrodolarren fenomenoa. Ondasun batzuk, petrolioa bereziki, dolarretan neurtzen ziren; eta herrialde guztiek dolarrak onartzen zituzten, dolarrek petrolioa eros zezaketelako.

Definizioz, dolar-erreserbak AEBetako aktiboetan inbertitu behar ziren, eta AEBetako ekonomiarako kapital-kontuen soberakina sortzen zuen horrek. Kapital horrek AEBetako merkataritza-defizita finantzatzen zuen.

Petrolioa dolarretan neurtzen zenean, AEBetako eragiketaren bidez eta dolarra *de facto*-ko moneta izanik, AEB, dohainik, munduko petrolioaren jabe bihurtzen ziren. Zenbat eta AEBek paper berde gehiago inprimatu, orduan eta AEBetako aktiboen prezioa handiagoa izanen zen. Horrela, dolar sendo baten politikak AEBei irabazi bikoitza ematen zien.

Dolar sendoaren politika AEBen onurarako zen, zeren AEBetako aktiboak garesti bihurtzen baitziren atzerritar inbertsiogileentzat. Horrelako globalizazio bereziaren ondorio kaltegarriak bistakoak dira garabidean zeuden ekonomietarako. Mozkina hartzen zen beraien esportazioetatik eta ekonomia nazional horietan ez zegoen kapitalik, zeren dolar soberakin oro AEBetako altxorretan inbertitu behar baitzen, beraien moneta nazionalen kolapsoa alboratzearren.

Gainera, mundu osorako azken kontsumitzaile gisa, AEBetako ekonomia zorburbuila batean sartu zen, zeinak gezurrezko kontabilitatea hazi baitzuen.

Beraz, egitura finantzario globala berregituratu behar zen, erosteko ahalmenaren parekotasunean oinarritutako truke-tasetara itzultzeko.

Liuk dioenez, hasierako puntua honako hau da, alegia, nazio esportatzaileei beren esportazio guztiak beren monetetan ordaintzea eta, horrela, egitura finantzario globala moneta askoko sistema bihurtzea. (Horixe da, hain zuzen ere, eta era sakonean, Schmitt-ek proposatutakoa azken hogeitau urte hauetan. Ikus lan horren bukaeran nazioarteko kapital finantzario espekulatzaileaz eta kanpo-zorraz esanen dena.)

(vi) 2002ko apirilak 14. J. Yarjani, *The choice of currency for the denomination of the oil bill*.

(<http://www.lpee.org/NewsInfo/Speeches/sp2002/spAraqueSpainApr14.htm>)

Hona hemen Yarjanik esan zuenaren laburpena “The international role of the euro” izeneko mintegian. Arazoa ondokoa da: ea euroak mundu-merkatu finantzarioetan parte hartuko duen, AEBetako dolarraren nagusigoa desafiatuz eta, horrenbestez, petrolio-merkatua eta dolarraren nagusitasuna desafia dezakeen.

Euro-gunea petrolio-inportatzailea da. Bistakoa denez, dolarretan izendaturiko petrolioaren merkataritza AEBetako interesen alde izan da, zeren berak ez baitu jasan behar izan moneten inolako transakziorik. Beste moneta batzuen aurka, dolarra igotzen denean, petrolioaren prezioa garestiagoa da gainerako mundurako.

Europako Batasunaren ikuspuntutik, Europak nahiago luke petrolioaren ordainketak dolarretik eurora transferitzea, efektiboki moneta-arriskua alboratuko lukeen eragiketa bailitzateke. Horrek LPEEko herrialdeen eta EBren arteko loturak sendotuko lituzke. Kontua da ea LPEEko herrialdeek nahi izanen luketen petrolio eurotan ordaintzea. Yarjaniren ustez, etorkizunean LPEEko herrialdeak prest egonen lirateke petrolioaren prezioak eta ordainketak eurotan onartzeko.

Zenbait herrialdek osatzen dute LPEE¹; horietako batzuek Europarekin gauzatzan dutenez merkataritza, petrolioaren prezioa eurotan hobetsiko lukete.

(vii) 2002ko ekaina. H. Henderson, *Beyond Bush's unilateralism*. (<http://www.hazelhenderson.com/Bush's%20unilateralism.htm>)

Bere *Beyond Globalization* (1999) izeneko liburua aipatuz, Hendersonek gogoratzen du ezen finantza globalaren erreformaren alde, moneta-trukeen zergen alde, eta dolarraren *de facto*-ko erreserba-monetaren murrizketaren alde egonik, dolarraren eta euroaren parekotasunaren alde dagoela. Halaber, Venezuela eta Txina moneta-erreserbak eurotan gauzatzan hasi direla gogoratzen du; era berean, haren ustez, LPEEko herrialdeek petrolio eurotan neurtu beharko lukete.

Bide horretatik, AEBek ezin izanen dute jasan gehiago beren merkataritza defizita.

(viii) 2002ko uztailak 17. J. Garnaut, *US dollar losing its position as Asia's reserve currency*. (<http://www.rense.com/general27/rec.htm>)

R. Reunie moneta estrategak dioenez, Txinako, Taiwaneko, Hong Kongeko eta Hego Koreako banku zentralak beren erreserba-monetako aktiboak eurotan hasi dira metatzen, eta horren ondorioz, euroa munduko bigarren erreserba-moneta bihurtu da.

(ix) 2002ko abuztuak 23. Dow Jones, *Economics drive Iran euro plan, politics also key*. (<http://www.iranexpert.com/2002/economicsdriveiraneroil23august.htm>)

Irandar iturriek diotenez, Europari egindako petrolio-salmenten ordainketak eurotan (ez dolarretan) eskuratzeko proposamenak bereziki oinarri ekonomikoak dauzka.

Irakek, bere aldetik, jadanik 2000. urtean bere bezeroek bere petrolio eurotan ordain zezatela nahi zuen.

(x) 2002ko abuztuak 25. Iran Financial News, *Forex fund shifting to euro*. (<http://www.payvand.com/news/02/aug/1080.html>)

Iraneko *Forex Reserve Fund* delakoan zeuden aktiboen erdia baino gehiago eurotara aldatu ziren.

1. Hona herrialde horiek: Aljeria, Ekuador, Gabon, Indonesia. Iran, Irak, Kuwait, Libia, Nigeria, Qatar, Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak eta Venezuela.

Parlamentuko Garapen-komisiokidea den M. Abasspour-ek dioenez, AEBek beren monetaren bidez menperatu dituzte beste herrialdeak, beste moneta sendo batzuen gainean dolarrak daukan nagusitasuna dela kausa, eta AEBek merkataritza globala monopolizatu dute.

(xi) 2002ko urriaren 27an, G. Vidal, *The enemy within*.
(<http://www.ratical.org/ratville/CAH/EnemyWithin.html>)

Vidalek, Brzezinski-ren liburua (1997) azpimarratuz, Erdialdeko Asiako petrolioari dagozkion AEBen helburu geopolitikoak gogoratzen ditu, AEBen barneko etsaiak —Bush, CIA, ...— zeintzuk diren aipatuz.

(xii) 2002ko abenduak 1. C. Gluck, *North Korea embraces the euro*.
(<http://news.bbc.co.uk/1/hi/world/asia-pacific/2531833.stm>)

Ipar Koreak ez zuen gehiago dolarrik erabiliko, eta euroak erabiltzen hasiko zen.

(xiii) 2002ko abenduak 13. A. Nayyer, *Iraq and oil*.
(<http://www.pakistanlink.com/nayyer/12132002.html>)

Arma-behatzaileak ahaztu behar ziren. Bush-ek Saddam-i eraso eginen zion 2003ko lehen hiru hilabeteetan, behatzaileek armak aurkitu ala ez.

Zergatik erabaki zuten AEBek gerra hori martxan jartzea? Arrazoi bat petrolioia zen. Baina, nahiz eta AEBek irakiar petrolio-arlo guztiak bereganatu, hortik etor zitekeen irabazia —urtero AEBetako Altxorrari $20 \cdot 10^9$ dolar— ez zen asko, zeren AEBetako gobernuaren gastua hori baino 150 bider handiagoa baitzen, eta AEBetako ekonomia hori baino 500 bider handiagoa.

Gainera, proiektatutako gerra $50-100 \cdot 10^9$ dolar kostatuko zen. Beraz, Iraken aurkako gerra ez zen mozkin-sortzailea izanen, LPEE suntsitzeko baizik. Horixe zen epe luzeko ondorioa.

(xiv) 2002ko abendua. Aspects of India's Economy, 33-34 zenb., *Behind the invasion of Iraq*. (<http://www.rupe-india.org/34/behind.html>)

Euroa izan zitekeen dolarraren ordezkoa, erreserba-moneta global gisa. Hori gertatuz gero, AEBen defizitak finantzatzeko bidea —munduko aurrezkiak zurrupatzeari— mehatxaturik geratzen zen. AEBek petrolio-merkataritza osoa eurotan gauzatzeari alboratu nahi zuten, dolarraren nagusitasunari eusteko. Bide horretatik, Europar Batasunak Amerikari egindako desafioa ezabatu nahi da (Europa Iranen sartzeari ere eurotan oinarritutako petrolio-ekonomia ekar lezake. Horrela uler daiteke, agian, Iran ere “gaizkiaren ardatzean” sartzea.)

(xv) 2003ko urtarrila. W. Clark, *The real reasons for the upcoming war with Iraq: a macroeconomic and geostrategic analysis of the unspoken truth*.
(<http://www.ratical.org/ratville/CAH/RRIraqWar.html>)

Iraken aurkako gerra petrolio-monetari buruzko gerra zen. Etorriko zen gerra horren muina LPEEko herrialdeak eurorantz —petrolio-transakzioarako moneta standard gisa— mugitzea debekatzea zen. Euroa petrolio-moneta modura onartzeak arriskuan jartzen zuen “Petrodollarraren” makroekonomia. Clarken iritziz,

moneta-sistema globala erreformatu beharra zegoen: dolar/euro “merkataritza-banda” onartu behar zen, LPEEko petrolio-transakzio dualak ahalbidetzeren.

Iraken masa-suntsipenatarako armen potentzialtasunak ez zirudien egiazkoa. Clarken aburuz, Hussein boteretik kentzeko giltza euroa da: dolarraren gaineko euroaren mehatxu makroekonomikoa zen arriskua. (Iranen zegoen eurorako joera ere kontuan hartzekoa zen).

Bushek aukera militarra hautatu zuen, erreforma monetario multilateralaren orde. Dudarik gabe, Pertsiar Golkoan indar militar iraunkorra kokatuko zen, eta LPEEko beste herrialdeei luzatzen zitzaien mezua argi zegoen: gobernu-sistema aldaketa bat egonen zen, beraien petrolio-ordainketak eurotan gauzatzen hasiz gero. (LPEEko beste “gaizkiaren ardatza” Iran izan zitekeen. Iranek bere erreserba-fondo gehienak eurotan jarri baitzituen 2002. urtean. Beraz, bazirudien bere petrolio-ordainketak eurotara aldatuko zituela.)

Beharbada, Kuwait-ek eta Venezuela-k ere transakzioak eurotan gauzatzera jo zezaketen. Horixe zen, hain zuzen ere, AEBek ekidin nahi zutena. Bestalde, Ipar Korea ere euroak erabiltzen hasi zen merkataritzan. Eta hori gutxi izan balitz, atzeritar gobernu batzuek dolarretik eurora aldatu zituzten beren erreserba-fondoak.

AEBek bestelako egiturazko desorekak jasaten zituzten. Baina, AEBetako dolarraren sendotasuna bera nazioarteko erreserba-moneta izatean zetzan. Izan ere, *de facto*, petrolio-transakzio globalerako moneta bakarra zen (“petrodolarra”). Petrodolar horien bilioiak inprimatzen zituzten AEBek, eta gero estatuek erabiltzen zituzten LPEEko herrialde ekoizleei petrolio/energia erostearren. Petrodolar horiek gero LPEEtik birziklaturik itzultzen ziren AEBetara, Altxor-kontuen bidez edo dolarretan izendaturiko beste aktibo batzuen bitartez —stockak, ondasun higiezinak eta abar—.

Ikuspuntu ekonomiko eta monetario soil batetik 2005/2006 inguruan, logiko bihurtuko da LPEEko herrialde batzuek eurora jotzea petrolio-prezioetarako. Beraz, kontua argi zegoen, gerra erabili behar zen LPEEko erabaki-prozesuak geldiarazteko, horrela, petrolioaren prezioak eurotan gauzatzea saihesteko.

Gerra, beraz, petrolioaren moneta globalaren gainean izanen zen. Nazioarteko moneta-sistema erreformatu barik, Bretton Woods-eko konferentzia berri bat martxan jarri ordez, AEBetako gobernuak Iraken kontrako gerra hobetsiko zuen.

(xvi) 2003ko urtarrila. C. Nunan, *Oil, currency and the war on Iraq*. (<http://www.feasta.org/documents/papers/oil1.htm>)

Jakina denez, mundua ekonomikoki eta militarki menderatzen dute AEBek. Hegemonia hori lortzeko erabilitako erreminta bat dolarra izan da.

Dolarra, *de facto*, munduko erreserba-moneta da: truke-erreserba ofizial guztien bi heren gauzatzen dira AEBetako monetan. Atzerritar truke-transakzio guztien lau bosten egiten dira, eta munduko esportazioen erdia ere bai. Gainera, Nazioarteko Diru Funtseko (IFM delakoa) mailegu guztiak dolarretan gauzatzen dira.

Baina, zenbat eta gehiago zirkulatu dolarrak AEBetatik kanpo, edo zenbat eta dolar gehiago inbertitu atzeritar jabeek aktibo amerikarretan, gainerako munduak ondasun eta zerbitzu gehiago eman behar die AEBei dolar horien truke. AEBei ez zaie ia ezer kostatzen dolarrak ekoiztea; beraz, AEB ondasun- eta zerbitzu-kantitate erraldoiak inportatzen ari dira ia doanik. Atzerrian jabeturiko dolar asko ez direnez amerikar ondasunetan eta zerbitzuetan gastatzen, AEB gai dira merkataritza-defizit izugarria jasateko, urtero, dirudienez, ondorio ekonomiko larririk gabe. Esaterako, 2002ko azaroan, AEBetako inportazioak esportazioak baino %48 handiagoak ziren —joera horrek oraingoz bere horretan dirau—. Beste edozein herrialdek ezin du horrelako merkataritza-defizita izan, inolako inpunitaterik gabe. Prentsa finantzarioak dioskunez, gainera, AEB “azken kontsumitzaile” gisa aritzen dira, eta beraz, esker onekoak izan behar gara AEBekiko.

Baina, begirada zorrotzago batek esanen liguke ezen AEB interesik gabeko mailegu erraldoi bat eskuratzen ari direla mundu osotik.

Europak euroa martxan jarri zuenean zeukan helburu ekonomiko bat, agian garrantzitsuenetarikoa, ondokoa izan zen, alegia, euroa erreserba-moneta bihurtzea, dolarrari desafioa egiteko; horrela, Europak, ia ezer ezaren truke, zerbait eskuratzeko aukera edukitzearren.

Hori lortuz gero, AEBetarako kaltegarria izanen litzateke. Alde batetik, urtero doan eskuratutako ondasunen eta zerbitzuen parte bat galduko luketelako; eta, bestetik, herrialdeak dolar-erreserbetatik euro-erreserbetara igarotzeak AEBetako monetaren balioa jaitsiko lukeelako. Askoz gehiago kostatuko litzazkieke inportazioak amerikarrei, eta dolarren jabe direnak dolarrak gastatzen hasiko liratekeen ez, AEB beren zorrak ordaintzen hasi beharko litzazkiekete atzeritar herrialdeei, ondasunak eta zerbitzuak hornituz, eta, ondorioz, amerikar bizitza-baldintzak okertu egingo lirateke.

Bestalde, herrialdeek eta enpresek beren dolar aktiboak euro aktibo bilakatzen dituzten heinean, AEBetako stock-merkatuko burbuila lehertuko litzateke. *Federal Reserve* bankuak ez luke diru gehiagorik inprimatuko burbuila puztearren —gaur egun egiten bide duen bezala—, zeren atzeritarrek diru hori nahi ezean, inflazio sendoa agertuko litzateke, zeinak, bere aldetik, atzeritar jendeari dolarrak eskuratzeko nahia are gehiago murriztuko bailioke.

Petrolioari dagokionez, egia da petrolioia ez dela gaur egunean nazioarteko merkataritza-ondasunik garrantzitsuena, baina ekonomia industrializatu guztietan petrolioia da bizitza-odola. Petroliorik izan ezean, erosi egin behar da. Eta petrolioia erosteko, dolarrak eduki behar dira. Orain dela gutxira arte, LPEEko herrialde guztiak ados zeuden beren petrolioia dolarretan saltzeko. AEBek erabat kontrolatu dute munduko petrolio-merkatua dolarraren bitartez: dolarrarekin baino ezin zen erosi petrolioia, eta herrialde batek soilik zeukan dolarrak inprimatzeko eskubidea: AEBek.

LPEEko herrialdeek beren petrolioaren preziorako, euroak onartuz gero, orduan AEBen nagusitasuna gaindituta egonen litzateke. Horrexek adieraz dezake, zer dela-eta hasi ziren AEBak, mundua dominatzearren, beren bigarren erreminta erabiltzen, indar militarra.

(xvii) 2003ko urtarrilak 24. Associated Press, *US dollar on shaky ground*. (<http://onebusiness.nzoom.com/cda/printable/1,1856,163754,00.html>)

Errusiar banku zentralako Vyugin-ek dioenez, atzerritar truke-erreserbak, hein handi batean, dolarretatik eurotara pasatuko dira. Baina, oraingoz, Txinako, Japoniako, Hong Kong-eko, Singaporeko, Hego Koreako eta Taiwaneko nazioarteko erreserbak batez ere dolarretan daude.

(xviii) 2003ko urtarrilak 25. G. McCarthy, *Dollar's decline starting to accelerate, rattling nerves*. (<http://www.ratical.org/ratville/CAH/linkscopy/dollarDec.html>)

Euroarekiko dolarraren jaitsierak analista gehienak harritu ditu. Batzuek uste zuten jaitsiera hori ona zela AEBetako ekonomiarako, amerikar esportazioak gehitzearren.

Analistek ez dakite Iraken kontrako gerrak jaitsieraranzko joera hori bultzatuko duen ala ez.

(xix) 2003ko urtarrilak, 26. W. Hutton, *Why Bush is sunk without Europe*. (<http://www.observer.co.uk/Print/0,3858,4591686,00.html>)

Amerika botere izugarri bat da, eta bere atzean dauden bederatzi estatuk batera baino gehiago gastatzen du defentsan. Aurten (2003. urtean) bere ikaragarrizko defentsa-aurrekontua Britainia Handiaren defentsa aurrekontua dena baino kopuru handiagoan handitu du. Bestalde, gainerako munduarekiko bere pasiboa 2,7 europar bilioi dolar —2,7 amerikar trilioi— baino handiagoa da, bere Barne Produktu Gordinaren ia %39; zorraren maila hori Amerika Latinoko herrialdeetan soilik dute.

Atzerritarrak AEBetako ekonomian inbertitzeari uko egiten hasiz gero, dolarraren balioa jaitsi egingo litzateke.

Bestalde, gerra laburra izanez gero, dolarraren gaineko arriskua geldiaraziko zuela zioen autoreak. Baina, gerra hori luzatuz gero, dolarraren gaineko presioa oso handia izango zela, eta AEBetako ekonomiaren eragin depresiboak areagotu zitzaizkeela.

(xx) 2003ko otsaila. N. Beams, *Oil, dollars, euros and dead iraqi's*. (<http://www.informationclearinghouse.info/article1554.htm>)

M. T. Klare-k dioenez (*Foreign Policy in Focus* in www.fpif.org), AEBetako oraingo gobernuaren helburu garrantzitsuenetariko bat Cheney presidenteordeak 1990ean eginiko analisitik dator. Cheneyk honela zioen: «Pertsiar Golkoko petrolioaren fluxua kontrolatzen duenak AEBetako ekonomia ez ezik gainerako munduko ekonomia gehienak ere "eskupean" ditu».

Klarek dioenez, irudi hori da, hain zuzen ere, AEBetako gaur egungo gobernuaren pentsamendua islatzen duena, baina alderantziz: «Golkoko botere nagusia garenez, [amerikarrak, alegia] beste nazio batzuen gaineko "nagusitasuna" daukagu».

Gainera, orain badago beste arrazoi bat Pertsiar Golkoaren gaineko “domeinua” segurtatzeko. Kontua hauxe da: zein monetatan ordainduko diren petrolio-kontratuak.

AEBek 2,7 bilioi dolar zor dizkiote gainerako munduari. Zor hori finantzatzeko, AEBek egunean 2×10^9 dolarreko fluxua behar dute gainerako mundutik. Horrelako fluxu handia erakartzea dolarraren eginkizunari zor zaio —nazioarteko erreserba-moneta gisa—. Arazoa da euroa martxan jarri zenetik, dolarrak badaukala nazioarteko lehiakide bat. Hasieran, dolarraren igoerak euroa ez zela erakargarria erakutsi zuen. Baina, egoera aldatu da, 2000. urtearen bukaeratik, dolarra %15 baino gehiago erori da euroarekiko. Horrek LPEEko petrolio-produktugileei zer pentsatu eman die: ea ordainketak dolarretatik eurotara igarotzea merezi ote duen ala ez.

Horrelako aldaketak, AEBetako dolar-erreserba batzuk —stockak, bonoak eta beste aktibo batzuk— euro-erreserbetara pasatzea ekarriko luke, dolarraren balioa gutxitu egingo litzateke, eta, ondorioz, inbertsiogileen eraginez, fondo-erretiratzeak areagotuko lirateke. Hori gertatuz gero, AEBen zorra (gaur egun ez dauka garrantzi handirik eguneroko kalkulu finantzarioetan) aparteko garrantzia izanen duen faktore bihurtuko litzateke.

Beste hitz batzuetan esanda, petrolio-esportazioen merkatuan egon daitekeen oinarri finantzarioko aldaketa batek AEBen egoera finantzario globalean izugarriko eragina eta ondorioak ukanen lituzke, petrolioia dohainik eskuratu ahal izango balitz, nahiz, haren prezioa igoz gero.

Hala ere, AEBek irakiar petrolio-hornikuntzak kontrolatuko balituzte, zuzenean edo beste txotxongilo baten bidez, LPEEko herrialdeetan moneta-aldaketa geldiarazteko egoera hobean egonen lirateke.

(xxi) 2003ko otsailak 23, *The Observer*, *When will we buy oil in euros?* (<http://www.observer.co.uk/business/story/0,6903,900867,00.html>)

Gaur egun petrolio-merkataritza dolarretan gauzatzen da. Petrodolarrak birziklatuz, AEBek beren aparteko merkataritza-defizita eraman dute. Baina, azken urteak “petroeuro” delakoaren sorrera ikusi du.

Petroeuroa nazioarteko arazo monetario sakon baten oinarria da.

(xxii) 2003ko martxoak 3. P. Harris, *Shooting the money changers*. (www.yellowtimes.org/article.php?sid=1114)

Harrisek gogoratzen digu ezen nazioarteko moneten arteko transakzioak eguneroko 1,5 bilioioak direla ($1,5 \times 10^{12}$ dolar) eta horien %80tik %90era espekulatzen aritzeko direla. Harrisek nolabaiteko zerga proposatzen du espekulazio erraldoi horren kontra. Nahiz eta Harrisek Tobin-en izena ez aipatu, irakurleak badakike hori berori dela Tobin ekonomialariak aspaldi proposatutakoa, 1970eko hamarkadan hain zuzen ere.

(Aspaldian ere esana dugu Tobinen zerga adabakia besterik ez dela. Dena den, adabaki interesgarria une honetan, kapitalen ibilera erabat librea aldarrika-

tzen deneko aroan. Adabakiaz haratago joan behar da, nazioarteko kapital espekulatzailerearen jokaera aztertuz, arazo mingarri horri ebazpena emateko.)

(xxiii) 2003ko martxoak 11. P. Harris, *Shaking hands with the butcher*. (www.yellowtimes.org/article.php?sid=1145)



Fotografia. Gazteago zen Donald Rumsfeld eta Saddam Hussein elkarri eskua emanez agertzen dira. Fotografia 1983ko abenduan 20an hartu zen, Ronald Reagan presidenteak Rumsfeld Irakera bidali zuenean. Garai hartan, AEBetako gobernukoek ez zuten nahi Iranen eta Iraken artean zegoen gerra irandarrek irabaz zezaten. Amerikarrek bazekiten garai hartan zer-nolako arma-motak zituen Irakek, zer-nolako giza eskubideen urraketak bultzatzen zituen Saddamek, zer-nolako harremanak zeuzkan Irakek nazioarteko “talde terroristekin”... Hala ere, eskua luzatzen zioten elkarri. Harrigarria bada ere, AEBetako gobernu batek Hussein emandakoa AEBetako beste gobernu batek salatzen du, eta gerra hasteko aitzakia bihurtzen da.

(xxiv) 2003ko martxoak 27. G. Heard, *Ailing dollar strikes at euro in Iraq war*. (homepage.tinet.ie/~gulufuture/news/eurozone_war030323.htm)

Heard australiarra ildo beretik aritzen da artikulua mamitsu honetan. Izan ere, australiarraren ustez, Irak herrialdean AEBen eta Europaren arteko munduaren buruzagitza ekonomikoa jokatzeko ari da.

Heardek dioenez, Irak inbaditzeko Bush-ek hamaika (sasi) argudio erabili ditu, baina argudiorik sendoena estalita dago, ukitu gabe. Arazoa honako hau da, alegia, zein izanen den petrolioaren transakzioetarako moneta, eta etorkizunean mundua zeinek menperatuko duen, AEBek ala Europar Batasunak.

Heardek ere aipatzen du Iraken transakzioen moneta euroa izan dela 1999tik. Amerikak Irak inbadituz gero, euroa bere lehengo baliora itzuliko zen, dolarraren mesederako.

Oinarrizko eta garrantzi handiko arazo horri buruz *median* eztabaida gutxi egon dela aipatzen du Heardek, eta interneten bidez agerturiko zenbait artikulua azpimarratzen ditu, horien artean W. Clark-ena.

1999an, petrolio-transakzioak eurotan egiten hasi zenean Irak, analista amerikarrek barre egin zuten, Irakek akats handia egin zuela pentsatuz. Baina, bi urte geroago alarma-kanpaiak hasi ziren jotzen: euroa, dolarraren parean, gainbalioztatzen hasi baitzen.

Iran ere hasi zen pentsatzen gauza bera egitea, hau da, euroa erabiltzea petrolioaren transakzio monetarioetan. Venezuela ere hasi zen aztertzen dolarretik eurorako aldaketa hori. Errusia ere Europarekiko petrolio-trukaketa ea eurotan gauzatu behar zuen hasi zen ikertzen. Beraz, petrolioaren mundu-merkatua mehatxu handi baten menpe jarri zen. Amerika konturatu zen fenomeno hori geratu ezean, ezin izango zuela mundu-merkatua menderatu.

Heardek dolarrak —mundu-merkatuan erreferentzia bakarra eta erreserba-moneta nagusia izanik— dauzkan abantailak esplikatzeko bere artikuluan.

(xxv) 2003ko apirilak 15. P. Harris, *America's war against Europe*. (www.yellowtimes.org/article.php?sid=1083)

Harrisren ustez, Bushek bilatzen duen biktima Europa da. Izan ere, petrolioaren gaineko gerra honek moneta-arloko zenbait ezaugarri ditu.

Irak, 2000. urtean, bere petrolio-transakzio monetarioak eurotan gauzaten hasi zen. Une horretatik aurrera, euroak dolarraren gaineko %17ko irabaziak izan ditu, euroaren eta dolarraren arteko truke-tasa dela kausa. Harrisek honako galdera hau egiten dio bere buruari (Bushek bere buruari egin bide zion berbera): zer gerta liteke baldin eta LPEEko herrialde guztiek eurotan egiten balituzte beren petrolio-transakzio monetarioak?

Gaur egun, herrialdeen arteko merkataritza dolarren bidez gauzatzen da. Beraz, AEBek dolarrak ekoizten ditu, eta gainerako munduak dolar horiek eros ditzaketen produktuak eta zerbitzuak produzitzen ditu. Gainera, herrialde horien guztien kanpo-zorra zerbitzatzearren, beharrezkoak dira dolarrak: dolarrak erosi behar dira, norberaren erreserbak gehitzeko asmotan. Beraz, dolarrak erostean, dolarra sendotu egiten da. Paper berdeak jaulkiz, AEBen zorra handituz doa: AEBen zorra, 2002ko apirilaren 4an, 6,021 bilioi dolarrekoa zen, Barne Produktu Gordina 9 bilioi dolarrekoa zen bitartean.

Petrolio ere, produktu ekoiztu gisa, dolarren kontra trukatu da. Hor datza “petrodolarraren” kontzeptua. AEBek petrodolarrak inprimatzen dituztenez, beraiek kontrolatzen dute petrolioaren fluxua. AEBek munduko petrolio eskuratzen dute prezio minimo batean. LPEE, multzo modura, Iraken eredia segituko balu, leherketa ekonomikoa gertatuko litzateke. Izan ere, petrolio kontsumitzen duten herriek beren dolarrak erreserbetatik aterako litzukete, eta dolarren ordeztu euroak erosi. Dolarraren balioa gutxitu egingo litzateke eta aparteko krisia sortuko litzateke AEBetan, 1930ean gertatu zen antzera. (Japoniak ere jasanen litzuke krisiaren ondorio horiek, petrolioaren menpe bizi baita Japonia eta yenak dolarrarekiko sentikorta-sun berezia daukalako.)

Europak petrolio-kantitate handia inportatzen du. Horrenbestez, euroa munduko erreserba-moneta bilaka liteke, baldin eta LPEEko herrialde guztiek euroa onartuko balute beren transakzio monetarioak gauzatzeko.

Iraken kontrako gerra ez da soilik Irakeko petrolio kontrolatzeko (eta petrodolarrek babesteko), baizik eta herrialde petrolio-esportatzaileen kontrako mezu eta mehatxu bat. Hussein ez gain, epe luzean, gerraren helburua euroa da, Europa alegia.

2. Zenbait iruzkin

Heardek aipatzen duen moduan, egia da bere herriarekiko Husseinen portaera erabat salagarria dela, diktadore eta zapaltzaile hutsa dela: hala bere herrian bertan, nola kurduer egindako hainbat sarraskitan. Baina, horrek ez du justifikatzen inongo inbasiorik. Gainera, Nazio Batuen Elkarteko arma-inspektoreen lana bertan behera utzi zen, oso bide onean zegoela. Gerra horrek ez dauka inolako justifikaziorik, eta argudio gisa erabilitako giza eskubideen urraketa hainbat lekutan gertatzen da. Husseinek berak hamaika biderrez erabili du orain leporatzen zaiona, bere herriaren kontra eta kurduen aurka.

Iraken aurkako gerra ez da izan,

- (i) Irakiarren giza eskubideak urratu direlako. Urraketa hori eta kurduena aspaldikoa da, eta AEBek ez zuten ezer egin. Are gehiago, Rumsfeld-ek eta Husseinek eskua eman zioten elkarri 1983an.
- (ii) Irakek masa-suntsipenerako armak izan dituelako. Armen behatzaileei ez diete kasurik egin. Oraingo ez da horrelako armarik aurkitu, eta okerrena, Bushen gobernuak oraintsu esan duenez, argudio hori ez zen nagusia gerra hasteko.
- (iii) AEBek Iraken petrolio-produkzioa kontrolatu nahi zutelako. Gogora A. Nayyere esandakoa.
- (iv) AEBek petrolioaren prezioa kontrolatu nahi zutelako. Gogora Beamsek esandakoa.

Iraken aurkako gerra petrolio izendatzeko monetaren gaineko gerra izan da: petrodolarra versus petroeuroa. Izan ere, gerraren kausa nagusia jakiteko, beste arlo batera begiratu behar da, moneta-arloa hain zuzen ere.

Iraken aurkako gerra petrolio-monetari buruzko gerra izan da. Gerra horren muina LPEEko herrialdeak eurorantz —petrolio-transakziorako moneta standard gisa— mugitzea debekatzea izan da. Euroa petrolio-moneta modura onartzeak arriskuan jartzen du —petrodolarraren— makroekonomia.

Gerra, beraz, petrolioaren moneta globalaren gainean izan da. Nazioarteko moneta-sistema erreformatu barik —Bretton Woods-eko konferentzia berri bat martxan jarri ordez—, AEBetako gobernuak Iraken kontrako gerra hobetsi du. Bushek aukera militarra egin du, erreforma monetario multilateral baten ordez.

Dudarik gabe, Pertsiar Golkoan indar militar iraunkorra kokatuko da, eta LPEEko beste herrialdeei luzatzen zaien mezua argi dago: gobernu-sistema aldatuko da, baldin eta beraien petrolio-ordainketak eurotan gauzatzen hasten badira. Argi eta garbi utzi dute mezua AEBek.

Produzitzen den guztia —petrolioa, armak zein gurina izan— moneta jakinen bidez neurtzen da. Eta moneta horien trukeak eta gorabeherak dira aztertu behar direnak. Basamortu intelektual latz honetan, oso onuragarriak eta garrantzitsuak dira Liuren, Nunanen, Beamsen, Harrisen, Hearden eta, batez ere, Clarken artikulak bezalakoak. Irakurleak badauka zer aztertu eta zer hausnartu bertan.

Heardek eta Harrisek dolarrari buruz, nazioarteko sistema monetarioaren gaitzez eta kanpo-zorraren arazoaz egindako hausnarketak garrantzi handikoak izanik ere, teoria-mailan arazo horiek guztiak askoz sakonago eta hobeki aztertu ditu Bernard Schmitt ekonomialariak azken berrogei urte hauetan. Alta, kasu gutxi egin zaio.

3. Gaur egungo munduko ekonomiaz bi hitz

Munduko ekonomia dela-eta, ohiko teoriak erabiliko bagenitu, ondokoa esanen genuke:

- a. AEBek mundu-ekonomia kontrolatu nahi dute: eskaintzaren aldetik (petrolioa eta beste baliabide natural batzuk prezio merkeetan inportatuz) eta eskariaren aldetik (produktu eta zerbitzu amerikarrak prezio garestietan esportatuz).
- b. Barrura begira, aberatsen mozkinak inbertitzearren, zergak jaitziko dira AEBetan (batez ere Burtatik datozen mozkinen gaineko zergak).
- c. Langileen soldatak izoztuko dira (enplegu gehiago sortzeko asmoz).
- d. Armagintzan inbertituko da, negozio ziurra delako (gainera zenbait lekutan gerraren bat bultzatuko da).
- e. Munduko zordun nagusia izanik, AEBetan kanpo-defizita handituko da; baina, dolarra mundu-mailako moneta erreferentzial nagusia izanda, AEBek ez dute ukanen inolako konpromisorik eta beharrik defizit hori zuzitzeko (beste herrialde guztiek egin behar dute).
- f. Garatze-bidean dauden herrialdeen kanpo-zorrek beren horretan segituko dute, ezin dutelako beren zorrak kitatu.

Hitz bitan, inflazioa kontrolatzeko, langileen soldatak jaitzi behar omen dira. Langabezia gutxitzeko, gehiago produzitu behar ei da, eta mozkinen gaineko zergak jaitzi egin behar dira. Kanpo-baliabideak kontrolatu behar omen dira, nahiz eta herrialde askoren kanpo-zorra suntsigarria izan.

Horixe da, ohiko ezker eskemei lotuta bageunde, idatziko genukeena. Kontua da, ekonomiaren funtzionamendua deskribatutakoa baino pixka bat konplexuago dela. Izan ere, alde batetik, stagflazioa —langabezia gehi inflazioa— barneko produkzioari lotuta dagoenez, arazo makroekonomikoa da, eragile ekonomiko desberdinen portaeretatik erabat independentea dena. (Egia da ez dela gauza bera armak produzitzea eta produktu osasungarriak ekoiztea. Baina, inflazioari eta langabeziari dagokienez, makroekonomia berriak erakusten digunez, produktu horien monetizazioari begiratu behar zaio.)

Ekonomiak gehiago produzi dezan, langabezia gutxitzearen eta inflazioari aurre egiteko, goian aipaturiko ideia horiek guztiak edo antzekoak jarri ziren praktikan aspaldi, AEBetan, Reaganen agintaldian. Baina, makroekonomia berriak dioenez, “alokairuzko kostuek” ekoizten den produkzio osoa —produktuetan eta zerbitzuetan— neurtzen dute, eta ez, ekonomialari gehienek uste duten modura, produktu nazionalen alokatuei dagokien partea. Beraz, formalki ezinezkoa da alokairu nominalen murrizketa orokorrarekin alokairuzko kostuak gutxitzea.

Kostu eta prezio kontzeptuak argitu behar dira. Produktu nazionalaren kostua produkzio-prozesuan jaulkitako unitate monetarioen kopurua da. Prezioak merkatuan gauzatzen dira. Orokorrean, produktu bakoitza, merkatuan, haren produkzio-kostuan baino prezio handiagoan saltzen da. Horrela, alokairuzko errentak (*income* ingelesez) partzialki mozkinetan, interesetan, dibidenduetan eta errentetan (*rent* ingelesez) birbanatzen dira.

Alokairuak produktu monetizatuak dira: langileek espeziezako produktuaren orde, alegia espeziezko ekoizturiko produktuaren orde, monetako produktu berbera, hots, monetan integraturik dagoen produktu berbera eskuratzen dute.

Alokairu nominalak gutxitzen badira, produktu berbera moneta-kopuru txikiagoan integraturik egonen da. Produktua espeziezko lortzearen, errenta-tituludunek —kasu, langileek— alokairu monetarioak zenbat eta handiagoak izan orduan eta gehiago gastatu behar dute. Nahiz eta alokairu-mota guztiak (zuzenak eta ez-zuzenak —dibidenduak, interesak, errentak— erdira jaitsi, alokatuen multzoak, lehen bezala, produktu sozial osoa eskuratuko du. (Makroekonomian ari gara. Enpresa konkretu batean zer gertatzen den beste kontu bat da, hori arazo mikro-ekonomikoa baita).

Horrenbestez, inflazioa ez da gutxitzen langileen soldatak jaitsiz, zeren inflazioa arazo makroekonomikoa izanik, makroekonomian langileen multzoari gauza berbera —hots, produktu nazional osoa— baitagokio. Merkatuko prezioak kontuan izan eta gero, beste gauza bat da produktu nazional oso horretatik benetan zenbat eskuratzen duten, mozkinak agertzen direlako. Baina, horrek ez dauka zerikusirik inflazioarekin.

Langabeziari dagokionez, ekonomialari ortodoxoek diotenez, aberatsen errentak gehitu behar omen dira —zergak jaitsiz—. Schmittek (1984) argi frogatu duenez, errenta nominalen gehiketak ez dauka inolako eragin onuragarririk enplegurako.

Beraz, inflazioari eta langabeziari aurre egiteko, beste irizpide batzuk eduki behar dira kontuan. Izan ere, biak dira kapital finkoaren amortizazioari dagozkion patologiak.

Bestalde, petrolioaren eta beste baliabide batzuen kontrola lortzearen, kanpo-merkataritzara jo beharra dago. Gaur egunean, kanpo-merkataritza batez ere dolarraren bidez gauzatzen da. Nazioarteko transakzio horiek biziodunak dira, moneta bakar bat (edo eta gutxi batzuk) delako erreferentzia nagusia, eta transakzioak gauzatzeko, aldez aurretik eskuratu behar delako moneta hori (Schmitt eta Cencini, 1991). Horrenbestez, kanpo-produktuak —petrolio edota beste balia-

bide natural batzuk— kanpo-transakzioen bidez kontrolatzen dira, dolarraren bidez. Ondorioa nahiko argia da, kanpo-zorra betiko zor bihurtu da, eta horrela jarraituko du harik eta benetako nazioarteko moneta-sistema egoki bat martxan jarri arte. Horri gehitzen badizkiogu, inongo kontrolik gabe egunero 1,5 bilioi dolar mugiarazten dituen kapital finantzario espekulatzailak moneta desberdinen artean sortzen dituen egonkortasunik eza eta kaos monetarioa, gaur egungo globalizazioaren aurpegiak gordinena agertzen zaigu.

Inperioak hamaika trikimailu politiko erabiliko ditu, bere abantaileri eusteko, baita noizean behingo gerraren bat edo beste. Kontua da ekonomian transakzioak —nazionalak eta nazioartekoak— moneten bidez neurtzen direla eta moneta-teoria sendo eta egoki bat da gehien botatzen duguna faltan.

Kapital finkoaren amortizazioa ongi neurtzen eta kontrolatzen den egunean eta nazioarteko moneta-sistemak ondo funtzionatzen duenean, posibleak produkzioaren legamia bezalakoa izanen dira, eta edozein posible neto —kapitalaren interesak gainditzen dituen edozein posible— enpresaren benetako arrakastaren ezaugarri izango da. Horretarako, ekonomia osoa bere lekuan jarriko duen kontabilitate-mota berri bat halabeharrezkoa dela dioskue zenbait ekonomialarik.

Nazioarteko moneta-sistema berriak kanpo-zorraren arazoa eta kapital finantzario espekulatzailaren funtzionamendua aztertu behar ditu. Halaber, euroaren atzean dagoen Europar Batasunaren bilakaerari ere begiratu behar dio. Esan dezagun zerbait arazo horietaz.

4. Kanpo-zorra betiko zorra

Bi eratako herrialdeak daude: erreserba-monetak dituztenak eta ez dutenak erreserba-monetarik. Erreserba-monetarik ez duten herrialdeetan, kanpo-transakzioak ordaintzean agertzen den kanpo-zorraren zama dute. Fenomeno hori ikertu du Schmitt ekonomialariak (ikus Schmitt eta Cencini, 1991). Ekonomialari frantziarraren ondorioz garrantzitsuena honako hau da, alegia, herrialde zordunduek, beren kanpo-zorra dela-eta, zorraren interes netoaren kopurua birritan ordaintzen dutela.

Hasteko, esan dezagun ezen interes-tasaren zama ezin izanen zatekeela inoiz bikoiztu Keynes-ek nahi zuen plana (*Plan for the Establishment of an International Clearing Union*) martxan jarri izan balitz, non moneta nazionalak homogeen bihurtuko baitziratekeen.

Banku-diruaren partida bikoitzeko izaerari dagokion nazioarteko ordainketen sistema egoki bat ez edukitzeak gutxi garatutako herrialdeak behartzen ditu beren kanpo-ordainketen medioak, hots erreserba-monetak (gehienetan dolarrak), erostera. Ordainketa-medio soilaren erosketak kostu positibo neto bat dauka, ordainketak unilateralak direnean soilik: interes-ordainketen kasua da hori.

Definizioz, interes-ordainketak zama bikoitzean jaulkitako transferrak dira, zeren herrialde zordunduek ordainketa errealari eta ordainketa monetarioari, biei, egin behar baitiete aurre. Izan ere, lehendabizi, beren *output* nazionalaren parte bat herrialde hartzekodunei transferitzen diete. Gainera, beren erreserben parte balio-kide bat eman behar dute. Ordainketa “erreal” erabat legitimoa da —hartzekodu-

nek beren hasierako inbertsioak sorturiko errentaren banaketan parte hartzeko eskubidea dute—, bigarren ordainketa, aldiz, kaltegarria da oso.

Gaur egungo nazioarteko ordainketen sisteman, ez dago gaizki herrialde zordunduek beren hartzekodunei merkataritza-espertazio neto baten bidez ordaintzea; baizik eta beraiek errenta nazionalaren kopuru positibo baten transfer unilateralak sortzen duen kostua ere estali behar izatea. Giltza-moneta atzerritar baten bidez ordaintzera beharturik daudenez, gutxi garatutako herrialdeek beren errenta nazionalari eragiten dien galera alboratzea soilik lortzen dute, eta beren erreserba ofizialen gutxitze baliokidea jasatera beharturik daude edo beren kanpo-zorra gehitzea onartzera. Oro har, x interes-unitateko ordainketak herrialde ez-garatuei $2x$ unitate kostatzen zaizkie: bi bider haien hartzekodunei zor zaien kopurua. Izan ere, bigarren ordainketa ez da hartzekodunen onurarako, beraien herrialdeen onurarako baizik, herrialdeak osotasun gisa, multzo moduan, nazio monetario legez kontsideratuz. Herrialdeen arteko interes-ordainketa soilik maila makroekonomikoan uler daitekeela esan nahi du horrek.

Ikuspuntu mikroekonomikotik, zordunduengandik hartzekodunenganako errenta-transferra definitzen du interesen ordainketak. Horixe da, hain zuzen ere, herrialde jakin baten barruan, maila nazionalan, interesa ordaintzen denean gertatzen dena. Gauzak erabat aldatzen dira ordainketak mugen gainetik egiten direnean. Kasu horretan, zordunduen eta hartzekodunen arteko errenta-transferra ezin da gauzatu barneko monetaren konbertsio monetario baten bidez, moneta atzerritarretan aldatzen ez badira. Are sinpleagoa, herrialde zordunduak —egoiliarrek hartzekodun atzerritarrei interesak ordaindu behar dizkiete— kanpo-trukeko kopuru baliokidea ematen du, merkataritza-espertazio netotik datorren kopurua. Nahiz eta egia izan hasierako inbertsio atzerritarrak A herrialde zordunduan sorturiko errentaren parte bat G herrialde hartzekodunari zor zaiola, ez da zuzena esatea bere *output* nazionalaren parte bat ez ezik moneta atzerritarreko kopuru baliokidea ere ordaindu behar diola A-k G-ri. Bere espertazioetatik deribatutako kanpo-irabazien parte bat G-ri transferitua izanik, A-k uko egin beharko lioke bigarren ordainketari. Hori gertatzen ez baldin bada, zergatik da? Gaur egungo nazioarteko ordainketen sistemak ez duelako permititzen A-ko egoiliar zordunduek egindako ordainketa beren herrialdeak egindako ordainketan kostu libreko konbertsioa gauzatzea.

Gauzak maila makroekonomikoan daude gaizki. Egoiliar zordunduek behin ordaintzen dute, behar den moduan, baina haien herrialdea beharturik dago *bigarren biderrez* ordaintzera, zeren interes-transfer unilateralak A-ko ekonomian “putzu monetarioa” sortzen baitu. G-ren onurarako, A-ren transfer unilateralaren ondorioa ondokoa da: A-ren merkataritza-espertazioen parte baliokidea G-ri libreki ematea. Horrenbestez, A-ko egoiliar zordunduek egindako interes-ordainketak A-ko merkataritza-espertazioen ez-ordainketa dakar, zeina A-ko erreserba ofiziale-tan gutxitze baliokide batek orekatu behar baitu. Kanpo-zorraren zerbitzuaren bigarren zama hori berehala gehitzen zaio interes-ordainketa errealarari —G-ri A-ren *output* nazionalaren partearen transfer librea—, eta A herrialdeak eta bere egoiliarrek jasaten duten zama osoa bikoizten da. Berriz ere, ordainketa errealak espertazioek berez dakarten A-ren erreserba ofizialen gehitzea galarazten du; interes-ordainketa monetarioak, berriz, espertazioen bigarren neurria dakar, zeina ez

baitu G-k ordaintzen, eta defizit monetarioa sortzen du. Defizit hori, orduan, A-ren erreserba ofizialen gutxitzeak estaltzen du.

Egoiliar zordunduen ordainketa kanpo-zorren zerbitzuak behar duen ordainketa bakarra izanen balitz, A herrialdeak bitartekari soil gisa jardungo luke. A herrialdeak bere egoiliarrek gastaturiko barneko errenta eskuratuko luke eta hartzekodun atzerritarrei errenta baliokidea transferituko lieke. Kasu horretan, barruko diruaren konbertsioak moneta atzerritarrean zero kostuan hartuko luke parte, eta interes-ordainketaren karga bakarra G herrialdeko hartzekodunei ordaintzeko behar diren merkataritza-esportazioak izanen lirarteke.

Herrialde bakoitzean gauzaturiko erreformarik egon ezean, interes-ordainketak A-rako zama bakarra ekarriko luke, baldin eta nazioarteko konpentsazio-sistema batek herrialdeei ahalbidetuko balie beren barneko moneten konbertsio libretik profitatzea. Bestela esanda, interes-ordainketa normala izanen litzateke baldin eta bera herrialdeen arteko elkarrekiko transakzioen sistema batean integraturik balego. 1944an, jadanik, Keynes-ek gogoratu zuenez, horrelako sistemak ez ditu transakzioak murriztuko. Beraren helburua egitura monetarioa hornitzea da, nazioarteko ordainketak egokiro gauzatu daitezzen ahalbidetuz, inolako istilu monetarioarik sortu gabe, hau da, truke-tasen fluktuazioak sortu barik eta herrialde zordunduek beren kanpo-zorren interes gehituak birritan ordaintzera behartu gabe.

Schmitten teoria monetario berriak analisi zehatza ematen du nazioarteko ordainketen sistemaren eraketari buruz, eta aipaturiko emaitza horiek lortzeko behar diren kontabilitate-aldaketak erakusten ditu. Are garrantzitsuagoa dena, analisi berriak ebazpen praktikoa bat proposatzen du kanpo-zorren zerbitzuaren bigarren zamatik babesteko herrialde bakoitza (ikus lehen aipaturiko Schmitt eta Cenciniren liburua). Praktika hori martxan jarriko balitz, ebazpenak kanpo-zorren zerbitzua ordainketa bakar batera murriztuko luke; horrela, herrialde zordunduei berauek beren hartzekodunei ordaindutako interesaren irabazi baliokidea emanen liekete. Kasurako, 1988an, Mexikok 12.589 milioi dolar aurreztuko zituzkeen, Argentinak 8.976 milioi dolar eta Brasilek 12.446 milioi dolar. Herrialde horietako bakoitzak kopuru eskuragarri bat edukiko zukeen, kanpo-zorren zerbitzuaren “zulo beltzean” galdu dena.

Gaur egungo nazioarteko ordainketen “ez-sisteman”, herrialde zordunduek galtzen duten erreserba ofizialen gutxitze ez-justifikatua beraien interes-ordainketen baliokidea da, Schmittek argi frogatu duenez (2000a,b), eta galtze horiek herrialde horien Altxor Publikoek jasaten duten galera neurtzen du. Schmittek proposaturiko erreformaren ildotik, galera horiek alboratuak izanen dira betiko. Gaur egungo sisteman, aldiz, kanpo-zorra betiko zor bihurtzen da.

5. Nazioarteko kapital (finantzario) espekulatuzaileak hitz bi

Gaur egun, herrialdeen arteko transakzioak dolarretan (edo beste giltza-moneta batean) gauzatzen dira. Gaur egun, truke-tasak moneta nazional desberdinen prezio erlatiboan bidez definitzen dira (modu okerrean, jakina!), beraien eskaintzen eta eskarien egokitzapenen bitartez.

Truke-tasen fluktuazioak adierazteko, ekonomia-zientzia monetarioaren teoria berriak argi azaltzen du truke-tasa horiek ez daudela desordena monetario nazionalen, interes-tasen edo merkataritza-anomalien eta anomalia finantzarioen menpe. Izan ere, kanpo-zorraren zerbitzuaren kasutik at —berau oso berezi baita—, nazioarteko transakzioek herrialdeen arteko transakzioak inplikatzeko dituzte, kanpo-trukeko merkaturak oreka bermatzeko baldintza beharrezkoa eta nahikoa dena.

Bere merkataritza-inportazio netoak ordaintzeko, giltza-moneta duen herrialdeak bere dirua bikoiztasun-prozesu batera behartzen du, zeinak nazioarteko kapital espekulatibo baten sormenera baitarama. Rueff ekonomialaria izan zen euro-moneten (hobe xeno-moneten) analisia egin zuen lehen ekonomialaria, eta xeno-monetak truke-tasako fluktuazio erratikoak adierazteko giltza dira.

Labur ditzagun analisia. Demagun, erreserba-monetako A herrialdeak bere merkataritza-inportazio netoak ordaintzeko G herrialde esportatzaileei A-ko banku-gordailuen gaineko eskaeren transferra inplikatzeko dizkiela. Partida bikoitzeko kontabilitateak erakusten duenez, A-n eraturiko errentaren inongo unitaterik ez zaio G-ri transferitzen. G-ko banku-sistemaren alde aktiboan sarturiko kredituak A-ko banku-gordailuen parte baten jabea G dela esan nahi du. Gordailuak berak, hala ere, oraindik erabat presente daude A-ren banku-sisteman. Horrenbestez, G-k irabazten duena A-n oraindik eskuragarri irauten duen gordailu bat da. Kontua da G-ko banku-sisteman sarturiko A-ko diru-kopurua A-n beraren gordailu korrespondentearekiko autonomo bilakatzen dela.

Rueffek azpimarratu duenez, A dirua bikoiztasunera beharturik dago, aldi berean baita eskuragarria A-n eta atzerrian. A-n banku-gordailuek A-ren *output* korrontea definitzen dute, atzerrian, aldiz, inbertitutako bikoizteak ez dauka inongo objekturik, inolako eduki errealik. Bikoiztasuna ahalbidetuz eta bikoiztea hasierako banku-gordailuekiko autonomo bilakatzea ahalbidetuz, nazioarteko ordainketen gaurko egiturak erabat espekulatiboa den kapital baten eraketa sortzen du. Produkzio errealekiko inolako loturarik gabe, kapital horrek merkatu espekulatibo bat elikatzen du, non moneta nazionalak truke-objektu bihurtzen baitira eta beraien truke-tasak zuzenki eskaintzaren eta eskariaren menpe baitaude. Ondasun errealekin gertatzen den moduan, xeno-monetak beren konturako erosten eta saltzen dira; alta, ondasun errealekin gertatzen denaren aurka, moneten prezioa ez dago lotuta beraien produkzio-kostuei. Gainera, bikoizte hutsak izanik, xeno-monetek ez daukate inongo produktu errealik barnean. *Output* nazionalarekiko erlazio objektibo horren gabezia izan arren, xeno-monetak truke-objektu autonomoak dira, truke-merkatu atzerritarrean. Horrenbestez, merkatu horren izaera espekulatiboa egiten duena ez da bertan gauzatzen den transakzio-mota —transakzio batzuk ez dira batere espekulatiboak—, baizik eta bikoiztasun-prozesu patologikoari dago-kion merkatu horren existentzia bera, bikoiztasun horrek ordainketa-medio izatetik ordainketa-objektu izatera aldatzen baititu monetak. Kapital espekulatiboaren efektua da espekulazioa eta ez berorren kausa, kapital espekulatiboa moneta-bikoiztasunaren emaitza zuzena baita. Monetak truke-objektuetan aldatu bezain laster, haien truke-tasak beraien erosketen eta salmenten arabera aldatzen dira, eta aldaketa horietatik kapital-irabaziaz lortu nahiak sortzen du espekulazioa. Beraz, ez da harrigarria espekulazio-mota hori truke-tasen fluktuazioen kausarik

nagusiena bihurtzea, eta fluktuazio horiek, beren aldetik, espekulaziorako pizgarririk garrantzitsuena bilakatzen dira.

Ezin ote da gupil zoro horretatik irten? Schmitten teoria monetarioak ebazpen baten oinarriak hornitzen ditu. Bretton Woods-en, 1944an, Keynesek aurreikusi zuen moduan, Schmittek proposatzen duen aldaketak gaur egungo truke-tasa erlatiboen sistema truke-tasa absolutu transformatzera jotzen du. Moneta batzuk besteen kontra trukatuak diren sistema batetik, moneta bakoitza beraren aurka trukatu den sistema batera igaro behar da. Horrela, A dirua G diruaren kontra trukatu den bakoitzean, G moneta berehala atzera trukatu da A monetaren aurka. Printzipio hori da banku-monetaren kontabilitatearen izaerarekin eta diru horren erabilera zirkularrarekin egokia den bakarra. Herrialdeen arteko merkataritza-transakzioei eta transakzio finantzarioei aplikatzen bazaie, bikoiztasuna alboratzen du eta truke-tasen egonkortasuna bermatu. Horrenbestez, desordenatik ordenarako prozesuak egitura baten sortzea behar du, eta nazioarteko transakzioek truke absolutuen bidez parte hartzea ahalbidetzea. Keynesen *International Clearing Union* delakoari jarraituz egin daiteke hori, alegia, "Mundu-Banku" bat eratuz, nazioarteko moneta berri bat jaulkiz eta biak bitartekari monetario gisa eta konpentsazio-ganbara modura arituz.

Kasurako, ikus dezagun A herrialdeak egin behar duen merkataritza-inportazio neto baten ordainketa. Elkarrekiko trukearen printzipioa oinarritzkoa da diruaren erabilera zirkularra ziurtatzeko. Printzipio hori Munduko Banku berriari aplikatu behar zaio, zeinak, konpentsazio-arauen arabera, A herrialdearen ordainketa gauzatu baitezake soilik baldin eta A herrialdeari G gainerako mundutik ordainketa baliokidea egiten bazaio. Gure etsenpluan, Mundu-Banku berriak A herrialdearen merkataritza-erosketa netoaren ordainketa gauzatu lezake soilik A-k G-ri tituluen kopuru baliokidea saltzen dioenean. Mundu-Banku berriak jaulkiriko mundu-moneta berria erabiliko da aldi berean G-tik A-ra ondasun eta zerbitzu errealek eramateko, eta A-tik G-ra eskabide finantzarioak.

Merkataritza-aktiboan eta aktibo finantzarioan elkarrekiko trukea mundu-moneta berri baten erabilera zirkularraren bidez gauzatzen da, zeina, beste edozein banku-moneta bezala, bere emisio puntura bat-batean itzuliko baita. Mundu-moneta berria zirkulu itxi batean erabiliz, sistema berriak A-ren monetaren eta G-ren monetaren arteko truke-tasa egonkorra bermatuko du. Izan ere, moneta nazional bakoitza bere buruaren kontra trukatu da, mundu-moneta berriaren bitartekaritzaren bidez.

Mundu-moneta berria trukatu eta gero, eta A-ko merkataritza-inportazioak ordaintzeko gastatu eta gero, A monetak bere hasierako era berrartuko du, truke-transakzioen elkarrekikotasun perfektua kontuan izanda. Ondorio gisa, G-k esportaturiko ondasun eta zerbitzu errealean eta A-k esportatutako tituluen artean ordezkatze bat gauzatu da. Truke absolutuen bidez, G-k salduriko ondasunak eta zerbitzuak A diruaren eduki bihurtuko dira, eta A-k esportaturiko tituluek, aldiz, G diruaren forma hartuko dute.

Nazioarteko transakzioen sistema berriak, horrela, transakzio bakoitzean ordainketa erreala bermatuko du moneta baten —mundu-moneta berriaren— erabilera zirkularraren bidez, eta mundu-moneta berri hori inoiz ez da azken

ondasunean aldatuko. Gaur egungo truke erlatiboen tasako sistema ezegonkorra truke absolutuen tasako sistema batek ordezkatu eta gero, moneta nazionalen bikoiztasuna ere alboratuko da eta egonkortasun monetarioa bermatuko da.

6. Europar Batasunaren ajeak

Oraintsu sartu omen da Alemania krisian, eta euroak inoiz lortu duen dolarrarekiko trukerik ia gorena du. Nola ulertzen dira aldrebeskeria horiek?

Hemen aipatuko dena moneta nazional desberdinen artean eratu nahi den edozein gune monetarioari aplikatu dakioke, edozein area monetario homogeneotan erabil daiteke, non nazio monetario desberdinen subiranotasun monetarioa gorde nahi baita. (“Nazio monetario” kontzeptua moneta konkretu baten esparruak definitzen du. Ez da halaber nazio politikoarekin bat etorri behar. Euskal Herria, kasu, nazio politikoa da, eta ez da nazio monetarioa).

Truke-tasen fluktuazio erratikoak zirela-eta, 1992an Europar Sistema Monetarioak porrot egin zuenez, Europar Batasuneko estatuak, beren subiranotasun monetarioari uko eginez, Maastricht-eko Itunaren bitartez, egonkortasun monetarioa lortu nahi zuten. Horrela, 2002an, Europar Batasunean (EB) euroa jarri zen martxan.

Bistakoa da, moneta bakar batek zenbait moneta nazional ordezkatzeko baditu, beren arteko truke-tasak deuseztatzen dituela, eta moneten arteko fluktuazioak alboratzen dituela. Dena den, frogatu behar dena honako hau da: alde batetik, (i) subiranotasun monetarioari uko egitearen efektu negatiboak truke-tasak deuseztatzearen abantailak baino txikiagoak direla; eta bestetik, (ii) truke-tasen egonkortasuna ezin dela lortu nazioek beren moneta nazionalak erabiltzeari uko egin ezearn.

Ikus ditzagun bi puntu horiek. Jakina denez, Maastrichteko konbergentzia-irizpide kaltegarriek gaur egungo Europar Batasun monetarioaren eraikitzea gidatu dute. Euroa martxan jarri zenetik, dolarrarekiko etengabeko gorabeherak ezagutu ditu. Euroaren gaineko espekulazioaren emaitza gisa ikusi dira gorabeherak, eta ez euroaren beraren ahuleziaren ondorio modura. Orain euroa gora doa, dolarrarekiko trukean, baina, europar ekonomia, alemaniar ekonomiarekin batera, behera joanen bide da. Sorginkeriak? Magia? Zertan datza paradoxa hori?

Kontuan hartu ez dena haxe da, alegia, Europar Batasun monetarioak kapital-fluxu erabat libreak ekarriko dituela. Arraro samarra dirudi, zeren europar integrazioaren helburu nagusienetako bat, Europar Batasun monetarioari buruzko itunak agertu baino lehen ere, kapital-fluxuak libreak izatea izan baita. Hala ere, analisi monetarioak frogatzen du moneta bakar baten “esparru” monetarioaren barruan bakarrik dela librea kapitala zirkulatzeko. Bestela esanda, subiranotasun monetarioak muga nazionalen barruan kapitala libreki mugitzea ahalbidetzen du —hots, moneta “nazional” konkretu baten esparru “nazional” batean— baina herrialde batetik beste batera “ihes egitea” galarazten dio. Emaitza harrigarri hau partida bikoitzeko kontabilitatearen ondorio zuzena da.

Bankuek emititua, dirua bat-batean atzera itzultzen da ordainketa bat gauzatzeko den bakoitzean. Hortik ondorioztatzen da ezen produkzioaren bidez sorturiko errentaren kopuru osoa, halaber, *output* nazionala “monetizatzen” duten (barneko) bankuetan gordailatua dela. Errentatik deribatua izanik, kapitala ere banku-gordailu bat da. Ezinezkoa da herrialde jakin batean eraturiko banku-gordailuen kopuru osoa, beste herrialde batera transferitzea. Kapital-ihesa beti hartu izan da herrialdeen arteko kapital-transfer modura, zeren eragileak libre baitaude beren bankuei agintzeko beren erbesteko gordailuak transferitzeko. Orduan, esan liteke zentimo batek ere ezin duela alde egin berori sortu den banku-sistematik?

Erantzuna banku-diruaren izaerari dagokio. Diru-errenta banku-gordailu gisa definitu bada, logikoki ezinezkoa da banku-sistematik ateratzea eta beste banku batera transferitzea. Zer gertatzen da, orduan, eragile batek bere bankuari bere erbesteko kapitala transferitzea eskatzen dionean? “Transfer” hitzak inplikatu duenaren kontra, ezin kapital ez da iristen bere jatorrizko herrialdetik. Gure eragilearen kontua zorduntzen du bere bankuak (B), eta, trukean, beste herrialde batean eraturiko banku-gordailu baten gaineko jabegoa ematen dio eragileari. Beraren hasierako kapitalak B bankuan erabat gordailatuta irauten du, eta erbestean gordailaturiko kapital atzerritar baten gaineko eskaeraren kontra trukatu da. Horixe da kapital-ihesaren kasuan gertatzen dena. Esaerak diotenaren aurka, herrialdeak —egoiliarrek beren kapitalak beste herrialde batera transferitzen dituzte— ez du galtzen inolako kapital nazionalik.

Horrek ez du esan nahi, jakina, inongo galerarik ez dela jasaten, kasurako, autoritate fiskalen aldetik. Izan ere, herrialde bateko egoiliarrak arrakasta badute beren kapitalak beren zerga-biltzailearengandik isilean ezkutatzean, bistakoa denez, egoiliarrek kalte egiten diote herrialdearen barneko aurrekontuari. Hala ere, haien kapitalak ez dira iristen beraiek gordailatuta dauden banku-sistematik. Estatuarentzat galduak, kapital horiek oraingoz daude eskuragarri banku-sistema nazionalaren barruan.

Kapital-ihesaren analisi horren inplikazioak aipatutakoaz haratago doaz. Badi-rudi, muga nazionalak kapital-mugimenduen kontrako barrera eragingarriak direla, baldin eta soilik baldin beraiek subiranotasun monetarioan oinarritzen badira. Subiranotasun monetarioa ukatzen denean, “espazio” monetario berri bat sortzen da, non kapitala eskualde batetik bestera aske mugi baitaiteke. Europar Batasun monetarioak emaitza hori ekarriko du; kapitalak masiboki hegoaldeko iparraldera mugitzeko aukera izango dutenez, hegoaldeko Europar langabeziaren arriskua areagotu egingo da. Iparraldeko Europako konkurrentziadunen maila berean ezarrita, hegoaldeko Europako enpresak ez dira gai izaneren metatutako beren kapitalen kostu handiagoari aurre egiteko, eta, laster, beste enpresa batzuekin batzera, edo ixtera, behartuta egongo dira. Esate baterako, Fiat, Seat edo Renault enpresa han

diek, ziuraski, beren konkurrentziadun alemaniarrek bereganatuko dituzte, eta, ondorioz, langabezia sortuko da Hegoaldean.

Kontua da ekonomia nazionalen arteko desberdintasun ekonomiko garrantzitsuei esker, azken hogeitun urteetan zehar, Europa barnean, kapital-metaketa prozesua kostu ezberdinetan gauzatu dela. Orain, horrela metaturiko kapitalak fruitua emanen du, eratua izan den herrialdearen arabera. Europar Batasun

monetarioa lortu eta gero, hegoaldeko Europako enpresek jasango duten mozkin-tasaren gutxitzeak enpresak berak jarriko ditu arriskutan, beraien produkzio-kostuak erabat gutxitzera behartuko ditu. (Horrelako arazoak Europar Batasun monetarioan ez ziratekeen azaldu beharko, baldin eta batasun hori beste modu batean gauzatu izan balitz.) Hala ere, Europar Batasun monetarioak ezin izanen ditu kitatu aurretik enpresek bereganaturiko zorrak, ezta beraien interes-zorrak zuritu ere. Kapital-metaketaren prozesu nazional-etako desberdintasunak hartu behar izan dira kontuan, eta ez dirudi gaur egungo Europar Batasun monetarioa biderik onena denik hori horrela izan dadin.

Kontua da truke-tasen egonkortasunera iristea moneta nazionalak europar moneta bakarrak, euroak, ordezkatu barik, subiranotasun monetarioari eutsiz. Kasurako, Schmittek (1988) argi plazaratu zituen zenbait irizpide Europar Batasuna lortzearen, nazio monetario bakoitzak bere subiranotasun monetarioari eutsiz. Izan ere, EBko herrialdeek, batasun monetarioaren bidez lortu nahi duten helburu berbera beste modu batean lor daiteke, langabezia eragindako ondorio dramati-koak izateko inolako arriskurik gabe. Egonkortasun monetarioa bermatzearen, nahikoa izanen litzateke Europar Banku Zentralari eskatzea euroaren kideak diren herrialdeen artean erabiltzeko eta Banku Zentral hori Europar Kontentsazio gan-bara modura aritzea, Keynesek bere *International Clearing Union* delakoan nahi zuen antzera. Izan ere, Europak bere herrialde-kideen artean truke ekonomikoak hobetuko dituen sistema bat praktikan jartzeko aukera handia izan du, eta oraindik ere badu, herrialde bakoitzari aukera emanez politika monetario eta politika fiskal egokiak erabiltzeko, herrialdeen arteko konbergentzia ekonomikoa modurik one-nean segurtatzearen.

Europar Banku Zentrala jadanik existitzen da. Banku Zentrala beste modu ba-tera eratzea da arazoa. Erraza da Banku Zentral hori beste modu batera antolatzea, Nazioarteko Kontentsazio Ganbararako zeregina banku horrek gauza dezan. Kontentsazio-printzipioak nahiko ezagunak dira. Espero dezagun Europan arrazoi-a nagusitzea, langabeziaren areagotze drastikotik libre gera dadin. Gaur egungo irrazionalkeria ekonomikoak segitzen badu, “paradoxa” ekonomikoen menpe—euroa gora, europar ekonomia krisian— bizitzen jarraituko dugu.

Bibliografia

- Keynes, J. M. (1980): *Activities 1940-1944. Shaping the Post-War World: The Clearing Union. The Collected Writings of John Maynard Keynes*, 25. bol., Macmillan, Londres.
- Schmitt, B. (1984): *Inflation, Chômage et Malformations du Capital*, Castella, Suitza.
- , (1988): *L'ECU et les Souverainetés Nationales en Europe*, Dunod, Paris.
- , (2000a): “The double charge of external debt servicing”, *Quaderni di Ricerca, Laboratory of Research in Monetary Economics* 1.
- , (2000b): “Why the net interest on external debt weighs double on LDCs”, *Quaderni di Ricerca, Laboratory of Research in Monetary Economics* 3.
- Schmitt, B. eta Cencini, A. (1982) (1991): *External Debt Servicing. A Vicious Circle*, Pinter, Londres.